

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



La calle del teatro

Pasqual Mas

HIRU

164 orrialde

16 euro

Kalean egindako antzerkiaz

Hiru argitaletxeak kaleratu du Pasqual Masen *La calle del teatro*. *Claves para entender el teatro de calle actual* liburua. Kalean egindako antzerkiaren gainean Alfonso Sastrek egindako gogoetekin osatua dago. Liburuak 1999tik 2004ra bitartean *Fiestacultura* antzerki aldizkarirako egindako elkarrizketa sakonak jasotzen ditu. Egungo antzerki-gintzan lan nabarmena egin duten pertsonak dira Pasqual Masen hizketa lagunak. Erantzuleen artean Comediants, La Fura del Baus eta Xarxa Teatre taldetako zuzendariak, *Primer Acto* aldizkari ospetsuko zuzendari José Monleón, kale antzerkiaren erakusketa oneneta-

kotzat jo ohi den Fira de Teatre al carrer de Tàrragako zuzendaria, eta Salvador Tàvora, La Cuadra de Sevilla taldeko *alma mater*-a daude. **I**



Hotsak eta hitzak

Batzuen artean

OEPLI

52 orrialde

Lau hizkuntzetan sortutako poemen bilduma

Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren aitzakian kaleratu da *Sonidos y palabras. Sons i paraules. Hotsak eta hitzak. Sons e palabras* poema bilduma. Haur Liburuarentzako Espainiako erakundearen eta Consejo General del Libro, Consell Català del Llibre Infantil i Juvenil, Gáliz eta Galtzagorri elkarteen laguntzaz ikusi du argia. Gaztelaniaz, katalanez, euskaraz eta gailegoz sortutako olerkiak bildu dituzte, besteak beste egile hauena: Rafael Alberti, Miguel de Unamuno, Federico García Lorca, Juan Ramón Jiménez, Joana Raspall, Miquel Desclot, Olga Xirinacs, Joan Margarit, Juan Kruz Igerabide, Karlos Linazasoro, Miren Agur Meabe, Xabier Olaso, Joxan Ormazabal, Ana María Fernández, Antonio García Teijeiro, Xoan Babarro eta Helena Villar. **I**

Pako Sagarzazuk haurrei eskainia

Katuaren irribarrea ez da Pako Sagarzazuk haurrentzat idatzitako aurreneko kontakizuna. Hor daude *Honelakoxea da nire arreba* eta *Jon Txikiren abenturak*, besteak beste. Nolanahi ere, Joxan Ormazabalek euskaratu eta Jose Belmontek irudiz hornitutako *Katuaren irribarrea* zortzi urtetik aurrerako neska-mutikoei izan ditzaketen sentimen eta irrikak kontuan hartuta idatzitako istorioa da. Kontalaria berriz, jada bi urte dituen katua dugu. Jaio berria zenean, zakur amorratu baten eta are amorratuago zegoen jabearen artean, akabatu zioten ama. Orduan, kale gorrian gelditu zen bera, harik eta emakume batek –“izeba” da orain katua- haurrentzat- bazter batean aurkitu eta bere ilobari oparitzea erabaki arte. Geroztik familia du katutxoak, eta familia hori defendatzen ikasi du. **I**



Katuaren irribarrea

Pako Sagarzazu

ELKAR

68 orrialde

8,20 euro

Desiratutakoa bete daitekeelako

Munduko animalia-denda handiena, bitxiena eta miresgarriena zeukaten Noe senar-emazteek hiri bateko parkearen ondoan. Hala ere, ez ziren zoriontsu, ume-rik izatea lortu ez zutelako. Beraiek bizi ziren hiri berean bizi zen Sofia ere, txikiegia zelako etxetik irteten uzten ez zioten neskatoa. Noe senar-emazteak animalia-denda zeukaten lekutik oso gertu bizi zen Sofia, eta ontzi itxura zuen denda hartara joateko irrika zuen. Neskatoak bete ezinezko beste bi desira ere bazituen: lehengusu-lehengusinak izatea –bere lagunek bezala-, eta etxean animalia-aren bat izatea. Ezin, ordea. Gurasoak oso urrutitik etorriak zirenez, amonarik eta lehengusu-lehengusinarik ez zeukan inguruan. Baina zazpi urte betetzera zihoanean, Noe senar-emazteak ezagutzeko aukera izan zuen, eta geroztik nahiak lortzeko aukerak ere, izan badirela ikasi zuen. **I**



Noeren ontzi bat parkean

Wendy Or

IBAIZABAL

96 orrialde

9,80 euro



Kreta
Barry Unsworth
GAIK
170 orrialde

Zeusen sorlekuan barrena egindako bidaia

Sacred Hunger lanarekin Booker saria irabazi zuen Barry Unsworth-ek, eta hurrengo nobela ere, *Morality Play*, Booker sarirako izendatua izan zen. Narrazio askoren egilea da Unsworth eta askotan erabiltzen du iragana, baita oso aspaldikoa ere, bere istorioak kokatzeko, gaur egungo errealitatez jotzen dituen egoe-ekin konparaketak egiteko bidea ematen diolako. Eta iraganaren eta orainaren arteko elkar-eragina azaltzen nonbait saiatu bada, Gaiak argitaletxeak euskaraz plazaratu duen *Kreta* liburuan izan da. Bere emaztearekin batera Kretara egindako bidaian, uharte horretako egungo paisajea eta jendea, iragan mitikoan zein historikoan jaso izandakoarekin nahasten dira. **I**

Gurasoei ez erakusteko moduko nerabeentzako kontakizuna

Egileak berak ematen die aholkua *Pol eta Val* lanaren irakurle izan daitezkeen nerabeei: “Kontuz: ez erakutsi liburu hau gurasoei”. Arrazoia? Lana, politikoki ez zuzentzat jo daitekeela, hara! Baina norberaren bizi behartasun gorriak umore pixka batez ikusteko dohaina duen edonork gustura irakurriko ditu 13 urteko gaztetxo narratzailearen aitortzak. Bera, mutiko normala da, osasuntsua: dene-tik jaten du (gustatuz gero), sarri-sarri aritzen da kirolean eta masturbazioan, eta alkoholik sekula ez du edaten, merkea ez bada. **I**

Pol eta Val

Josetxo Orueta

PAMIELA

74 orrialde / 8,50 euro



M. JAIONE APALATEGI

«Ikastetxe sarearen berrantolaketa proposatu dut»

Laburbildu al zenezake zure lanaren mamia?

Erakuntza-Hezkuntza-Hizkuntza teoriak aztergai hartu ditut, Euskal Herriko ikastetxe sare osoan, herri-eskolak edo publikoak zein jabetun-eskolak edo pribatuak duten eragina ikertzeko. Eta horren ondorioz, sare osoaren berrantolaketa berri bat proposatu dut. Lana, funtsean 1994ko abenduaren 13an Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz egin eta aurkeztu nuen doktore-tesia da.

Orain argitaratzearen arrazoia?

Beno, ordutik hona, euskal hezkuntza formalaren inguruan asko egin da, baina hezkuntza-eragile mota guztien artean eraikitzen ari den errealitatean, oraindik ere, hutsune bat antzematen dut: euskal lurraldean jardun duten ikastetxeen izatea eta balioa eguneratzeko ikuspegi intelektual baten beharra. Hezkuntza adituen zeregina litzateke ikuspegi hau gauzatzea eta beste eragileei ezagutzera ematea. Haatik, adituen lan hau burutzeko Eskola-erakuntza zientziaren laguntza ezinbestekoa da.

Zer erakusten du zientzia horrek?

Eskola-erakuntza zientziak, ikastetxea ikertzeko beharrezkoak diren oinarri teorikoak eta praktikoak antolatzen erakusten digu, bere bidez garaian garai-ko eta tokian tokiko egitura intelektualak altxatzen lagunduz. Zientzia honek, nire ikerketak dituen hiru zatietan, ikastetxeen printzipio, lege eta sinesmenen arteko harremanak eta lehentasunak nolakoak izan daitezkeen atzematen laguntzen digu, beharrezkoa dugun egitura intelektualak eraikitzen; eta behin hau lortuz gero, nahi dugun ikastetxearen dimentsioa nolakoa den jakitea lor dezakegu.



egileari galdezka

Berezko hezkuntza sistemaren beharraz

Euskal Herriak ez du berezko hezkuntza-sistematik, eta bere lurraldeetan diharduten

Frantzia eta Espainiako sistemak ez dute bere historiaren jatorria eta garapena ziurtatzen. Horretaz oharturik ekin zion M. Jaione Apalategi Begiristainek duela 12 urte aurkeztu zuen *Eskola-erakuntza eta bololinguitika* doktorego-ikerketari. Ordutik hona hezkuntza eta ikastetxearen inguruan asko egin dela ontzat emanik ere, bere tesiak proposatzen zuen egitura intelektual bat altxatzearen beharrak bere horretan jarraitzen duela irizten dionez, alegia, euskal hezkuntzak oraindik orain behar duen jitea egituratzea ez dela bete, tesi hura jasotzen duen *Ikastetxeen egitura intelektual* liburua plazaratzea erabaki du M. Jaione Apalategik Utriusque Vasconiae argitaletxearen bidez. Nafarroako Unibertsitate



Ikastetxeen egitura intelektual

M. Jaione Apalategi

UTRIUSQUE VASCONIAE

306 orrialde

38 euro

Publikoa sortuz geroztik, Psikologia eta Pedagogia sailean Didaktika eta Eskola-Antolakuntza ezagutza arloko irakaslea da egilea. Hezkuntza-erakuntzaren teoria eta praktika ikertu eta irakasten ditu. Eta hezkuntza egitatea nola gauzatzen den ikastetxearen makro eta mikro antolaketan da bere ikergaia, hezkuntza-erakundearen eremu erreala, legala eta zientifikoa aztertuz. **■**